

KUTXABANKen 60 URTE EDO GEHIAGO ADINEKO, JAKINARAZITAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA, FINANTZA-TXARTEL AKTIBO BAT, URRUTIKO BANKA KONTRATATUTA ETA PENTSOIA HELBIDERATUTA DITUZTEN BEZEROEN ARTEAN EGINGO DEN 10 TABLETAREN ZOZKETAREN OINARRIAK

1- Kutxabankek estatu mailan egingo duen jarduera komertzial honetan 60 urte edo gehiago duten bezeroek parte hartu ahal izango dute. Horretarako, hurrengo oinarrietan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Kutxabankeko langileak sustapen honetatik kanpo daude.

2.- Sustapen honetan Samsung markaren Galaxy Tab A7 modelokoa Tablet baten HAMAR sari zozkatuko dira. **Zozketa hau 2021eko urriaren 1ean egingo da** Notario baten aurrean, Bilbon, eguerdiko 12etan, edo ondorengo eta gertuko data batean, aurreko horretan ezin bada.

3.- Zozketa honetan 60 urtetik gorakoak diren Kutxabankeko bezero guztiek parte hartu ahal izango dute. Horretarako, **2021eko abuztuaren 22an Kutxabanken bere izenean** jakinarazitako helbide elektronikoa, finantza-txartel aktibo bat, urrutiko banka kontratatuta eta pentsioa helbideratuta (kotizazio gabekoak edo laguntzea helburu dutenak izan ezik) eduki beharko dituzte, kontu horren titularrak izan behar dira eta Kutxabankeri jakinarazitako helbide elektronikoa 2021eko abuztuaren 23ko astean zehar **jasoko dutenetik** newsletterrean prestatuta dagoen **formularioan irailaren 28ra arte bere izena eman behar dute**. Bezero zendutakoak, berankorrek eta Robinson zerrendan sartutakoak parte-hartzetik kanpo daude.

4.- Bezero bakoitzari zozketan zenbaki bakarra emango zaio (pentsio bat baino gehiago daukaten edo behin baino gehiago bere izena parte hartzeko ematen duten kasuetan ere partaidetza bakarra edukiko dute) eta aldi bakarra saritu ahal izango da soilik.

5.- Partaidetza duten bezeroen behin betiko fitxategiaz zozketa egingo dute. Fitxategitik ausazko moduan zenbaki bakarra aterako da, bertan erregistratutako lehenengo eta azken aukeren artean dagoena. Zenbaki hori saritutako lehenengo aukera izango da.

Ondoren, titularreko beste 9 aukera lortzeko, gainerako fitxategiaren zenbaki bakarra ausazko moduan 9 aldiz aterako dira, bertan erregistratutako lehenengo eta azken aukeren artean dagoena.

Jarraian, erreserbako bi aukera lortzeko, gainerako fitxategiaren zenbaki bakarra ausazko moduan bi aldiz aterako dira, bertan erregistratutako lehenengo eta azken aukeren artean dagoena eta erreserbakoak gordeta geratuko dira atera diren ordenaren arabera.

6.- Irabazleei zozketaren emaitzaren berri emateko bide frogagarria erabiliko da.

7.- Sariak ezin izango dira ordeztu balio bereko beste sari batekin edo bere eskudiruzko kontrabaliorekin.

8.- Kutxabankek ekitaldi horretarako egoki deritzon moduan eta lekuan banatuko dira sariak.

9.- Saritutako bezeroak saria onartu duela jakinarazi beharko du, horretarako egindako fitxa batean izenpetuta, eta sariaren jakinarazpena jaso ondorengo 2 egutegiko eguna egingo du.

10.- Lehiaketan parte hartzearen ondorioz, parte-hartzaile sarituen datuak Kutxabanken Informazio Sistemak gordeko dira, eta haien izena, abizenak edo/eta irudia edozein publizitate edo sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, jarri, erabili edo zabaltzeko besterik ez dira tratatuko. Horrek ez dio interesdunari trukean ordainsaririk edo etekinik eskuratzeko eskubiderik emango (oinarri hauen arabera lortutako saria ematea izan ezik), sariaren frogagirian interesdunei edo ordezkari legalari, dagokionaren arabera, eskatutako berriazko baimena baldin badauka erakundeak. Horrez gain, jakinarazten dugu datu pertsonalen tratamenduari zerikusia daukan edozein arazoren aurrean, kontrolerako agintaritzan erreklamazio bat aurkez daitekeela edoniz. Halaber, datuetara sartu, zuzendu, ezabatu, aurka agertu, tratamendua mugatu eta lekualdaketa eskatzeko eskubidea ere badago, bai eta datu pertsonalekin loturiko banakako erabaki automatizatuen parte ez izateko ere. Eskubide hauek guztiak idatziz gauzatu daitezke, Kutxabanken helbidera bidalitako jakinarazpenen bidez, edo posta elektronikoz, helbide honetara: info@kutxabank.es. Bi kasu hauetan, NANaren fotokopia bat erantsi beharko da. Zure datuak araudiak agindu bezala tratatu ez ditugula uste baduzu, Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: dpo@grupokutxabank.com. Dena dela, Datuen babeserako gure politikari buruzko informazio gehiago kontsulta dezakezu www.kutxabank.com webgunean edo Kutxabanken edozein sukurtsaletan.

11.- Saritutako bezeroak sariari uko egin ahal izango dio baina ezin izango dio beste inori laga.

12.- Bezeroak sariari uko eginez gero, ez du inolako konpentsaziorik jasoko.

13.- 9. puntuari aipatutako bezeroarentzako jakinarazpena bidali denetik egutegiko bi egutegiko egun epean, onartzeko edo uko egiteko inolako jakinarazpenik jaso ezean, bezeroak sariari uko egin diola ulertuko da eta saria erreserbako lehenengo aukerara igaroko da eta, horren ondoren, erreserben bigarren aukerara pasako da. Halaber, Kutxabankek saria erabiltzeko baimena izango du erreserben azkenak ez badu jakinarazten saria onartu duen ala jasotzeari uko egin dion.

14.- Saria esleitu ahal izateko, zozketan parte hartzen duen bezeroak ordainketak eta Kutxabankekin duen beste edozein eragiketa egunean eduki behar ditu, erakunde harekin ezergatik inolako kopururik zorrean eduki gabe. Gainera, bezeroak Kutxabankek txartel aktibo bat, urrutiko banka kontratatuta eta bere pentsioa helbideratuta Kutxabanken eduki behar ditu zozketa egiten den egunean.

15.- Kanpaina honetako sarien ondoriozko zergak saridunek ordaindu behar dituzte, sariaren balio fiskalari dagokion PFEZren konturako ordainketa izan ezik, izan ere, zerga hori Kutxabankek ordainduko du saridunaren izenean.

16.- Honako oinarri hauek bezeroen esku daude Kutxabankek bulegoetan eta bere edozein webguneetan.

17.- Kutxabankek ez du saria erabili eta gozatzeak ekar lezakeen inolako erantzukizunik bere gain hartzen.

18.- Sustapen honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla entitateak beronen mekanika zehazteko jarritako baldintzei dagokienean eta parte hartzailearen aldetik berariazko baimena azaldu behar ez bada. Kutxabankek deskalifikatu ahal izango ditu sustapenaren oinarriak bete ez dituzten erabiltzaileak..

Bilbon, 2021eko uztailaren 15ean.